

**B**azterrak harrotu ditu, Herbehereetan lehenago, orain gutxi Katalunian ere, Amanda Gorman poetaren nederlanderazko itzultzailea eta katalanezkoa, hurrenez hurren, atzera bota izanak, kasuren batean lana eginda eta entregatuta zuenean ere, ez baitute itzultitako egilearekin bat egiten arrazari dagokionez (herbeheretarraren kasuan) eta arrazari eta generoari dagokionez (katalanarenean). Ez dut argi poetaren gaztetasuna ere eskatu zaion batari edo besteari.



**JIRA**  
Angel Erro

Amanda Gorman poeta neska beltz gazte bat da. Modu ikusgarrian janzen da. Joe Bidenen kargu hartzearen zeremonian beroki hori eder bat jantzita errexitatu zuen olerki bat, buruz ikasia. Nola moldatzen eta nola mugitzen den ikusita, zer ordezkatzen duen ere ohartuta, etorkizuneko poesiaren esperantza dela aldarrikatzen dute askok, bere ezer irakurri (edo entzun) beharrik gabe. Ohituta gaude horretara egileekin. Zer baino nor edo nola omen da, gero eta maizago, literarioki ongi kokatzeko giltza. Amanda Gormanen defendatzaile sutsuenek ere ez dute ematen haren obraz dihardutenik alde mintzatzean.

Ohituta gaude horretara. Itzultzaileena berri da. Itzulgaia ahalik eta leialen berritu gabe, egile bera beharko dute orain mimitzatu, horixe baita artelana.

## Lege zaharra

**G**auza bat dira gure herrietan eraikita dauden elizak, eta beste bat, Eliza bera, instituzioa; eta, instituzioak, gure herrietako eliza horiek bereganatu nahi ditu. Ez meza emateko lekuak bakarrik: instituzioak dena gura du. Eta jendea lo egon garen bitartean, bere izenaren ipini ditu ahal izan dituen guztiak. Gure udalerrri txatxarrean, urrutira joan gabe, badi-tu gotzaindegiak frontoia eta aretoa, baserri osoak eta auzolanean jasotako ermitak. Inori ezer kendu gabe, bakoitzari berea ematea omen da Jaungoikoaren legea, eta



**BIRA**  
Onintza Enbeita

herriarena dena, herriari dagokio.

Hemen, ordea, Jaungoikoa eta lege zaharra elkarrekin doaz, lotura interesatu samarrean. Izan ere, foruak eta erlijioa elkarren eskutik joan izana ulertzen dut testuinguru historiko jakin batean, baina orain legeak beste batzuk dira. Eta lege horietan, Jaungoikoa eta Lege Zaharra aldarrikatzen dituen alderdiak, ez du kontenplatu nahi Elizak herriari kendutakoa herriari itzultzerik. Ez da ideologia kontua. Ezta fede kontua ere. Aberastasunaren banaketa eta herria ulertzeko modua da: edo ulertzen duzu herria denok garelako eta guztiona denak publiko behar duela, edo ulertzen duzu batzuk gorago daudela besteak baino eta botere banaketa interesatu bat aplikatzen duzu zure erabakietan.

**Paul Bilbao**  
Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia

**E**spainiako Estatuaren hizkuntza gutxiuen normalizazioaren alde lan egiten dugun erakundeetako ordezkariok sinatu dugu honako artikulua. Gizartean eragiteko hainbat proiektu eta ekimen bultzatzen ditugu, batez ere, gure lurraldeetako berezko hizkuntzan bizitzeko eskubidea ahalbidetzeko.

Hala ere, jakin badakigu gizarte-ekimenean aldeko hizkuntza-politikak eta neurri eraginkorrak behar dituztela. Horregatik jarri genuen martxan orain bi urte hizkuntza-eskubideen bernea eztabaida politikoan sartzeko ekimen bateratua.

*Hizkuntza-aniztasuna: askatasuna, berdintasuna eta demokrazia* dokumentua aurkeztea izan zen lehen urratsa. Bertan, alderdiei eskatzen genien hizkuntza-berdintasunaren printzipioa onar zezaten; denontzako eskubide eta betebeharrak berdinak dituen gizarte justua, anitza eta demokratikoa bermatzeko ezinbestekoa.

Emaitza honako hau izan da: hamar alderdik aldarrikapenarekin bat egin, eta berezko hizkuntza gutxituen aldeko Legez Besteko Proposamena aurkeztu zuten abenduan Kongresuan. Martxoaren 9an eztabaidatu zen.

Gogoratu dezagun Espainiako Estatuaren herritarren %45 berezko hizkuntza duten lurralderen batean bizi dela. Datu soila izateaz gaindi, antolamendu juridikorik ez duen errealitate baten adierazlea da. Gure lurraldeetako berezko hizkuntzak erabiltzeko eskubideak beti izaten ditu oztipo, bazterkeria, hertsapen, beto, ikusezintasun edota baldintza betegaitzak; Estatuako Aldizkari Ofizialaren babesarekin, gainera.

Espainiako Estatuak, ordea, onartuak ditu Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna zein Eskualdeko eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna. Horiek guztiak komunikazio-gaitasun berdina aintortzen diete hizkuntza-komunitateei, eta, ondorioz, aukera berdina izan beharko lituzkete berezko

hizkuntzetako hiztunek eguneroko jardunean; finean, eskubide berdinak dituztelako. Beraz, sinatzeaz gain, borondatea ere behar da berdintasuna, askatasuna eta demokrazia egikaritzeko.

Gizarte eragileok elkarriketarako prestutasun osoa erakutsi dugu. Horregatik, lege besteko gure proposamenari alderdiek egindako ekarpenak kontuan hartu, eta ahalik eta adostasun handiena lortzeko propo-

samen berria egin genuen; martxoaren 9an, Madrilan bertan ginela. Honako gutxieneko baldintza jarri genuen: hizkuntza-komunitate guztien arteko berdintasuna, eta horretara iristeko borondatea eta neurriak. Baldintza horrek aurrez aurre izan zituen alderdi popularrak eta sozialista. Batek, alderdi popularrak onartu zuen hizkuntza-eskubide eta -betebeharrak berdinak izan behar dituztela herritarrek, baina proposamena borondatean oinarritu nahi zuten. Bestetik, alderdi sozialista ez zegoen prest estatuko hizkuntzen arteko berdintasun osoa aintortzeko.

Horrela, azken berrogei urteotan estatutaren buru izan diren bi alderdien betiko jarrerak ez zuten ahalbidetu proposamenaren puntu guztiak onartzea; funtsean, hitzetan oinarritutako politiketatik politika betearazleetara pasatzeko urratsak egitea. Halere, proposatutako hiru neurri onartu zituzten.

Zalantzarik ez dugu, askieza izan arren, gizarte-eragileon presioari esker izan dela emaitza hori, eta lortu dugula eztabaida berriz ere irekitzea. Eseri, eta prest zegoenarekin hitz egitea. Bidea zehaztu dugu, eta lortu dugu eragile politiko berriak eskaerei atxikitzea; gure gizarteetan hain oinarritzekoak eta beharrezkoak, baina, aldi berean, hain iragazgaitzak diren eskaeri horiei atxikitzea.

Leiho bat ireki dugu, baina gure hizkuntzen etorkizunak leiho gehiago irekitzea eskatzen du, eta, noski, leihorik ez ixtea. Eragileok, noski, errealitate aniztatetik, ekiten jarraituko dugu, elkarlanean eta koordinatuta. Ahalik eta gune gehienetan eragiten ahaleginduko gara, arrazismo mota guztiak, hizkuntzarena barne, arbiatutako duen demokrazia erreala- ren alde. Onartezina baita hizkuntza-komunitate jakin batekoa izateagatik herritarrek diskriminazioa jasatea.

Izan ere, *queremos vivir en galego, volem viure en català, queremos vivir en asturianu, queremos vivir en aragonés*, eta euskaraz bizi nahi dugu.

### ARTIKULUA ERAKUNDE HAUETAKO ARDURADUNEK IDATZI DUTE:

Euskalgintzaren Kontseilua, A Mesa pola Normalización, Iniciativa pol Asturianu, Plataforma per la Llengua, Òmnium Cultural, Nogara, Acció Cultural del País Valencià, Obra Cultural Balear, Escola Valenciana eta Ciemen.

**Zalantzarik ez dugu, askieza izan arren, gizarte-eragileon presioari esker izan dela emaitza, eta lortu dugula eztabaida berriz ere irekitzea. Eseri, eta prest zegoenarekin hitz egitea. Bidea zehaztu dugu, eta lortu dugu eragile politiko berriak eskaerei atxikitzea**